



Kalera ateratzea baino ez zitzaion geratu Metaleko langileei.

# Gipuzkoako Metala:egia, gure benetako indarra

1

**Unai Oñederra / Iván Giménez**  
*Donostia, 2012ko urtarrilean*

**METAL ARLOA  
GIPUZKOA  
50.000 langile baino  
gehiago  
Lurraldeko hitzarmena  
(2010-2011)**

2010eko uda pasa da eta udazkena dator. Gerra danborrak Gipuzkoan. Uda aurretik lau greba egin ziren metalean, eta ekaina greba orokor batekin amaitu zen. Udazkenerako beste zazpi greba egun daude deituak. Jendearekin hitz egin behar da, gauzak azaldu, zeren aurrean ari garen defendatzen argitu. Jendeak jakin nahi du, eta guk esplikatu.

Unai Martinez, ELA Metaleko idazkari nagusia, enpresa bateko asanbladara doa, langileei aurrez aurre hitz egitera. Sorpresa. "Zuk ezin duzu sartu". Giza baliabideetako arduraduna da. Kanpokoek galarazita dute sartzeari. Bertako langileak baino ez. Unai kargu publikoa dela

dio, eta hortaz, sartzeko eskubidea duela, legez. Muturtuta joan da pertsonalekoa hori egiaztatzen. Burumakur dator bueltan. Unai arrazoi. Asanbladara langileekin hitz egitera, egoera azaltzen, inpresio eta sentimenduak elkarbanatzen. Orduan etorri da bigarren sorpresa: "Nik ere parte har al dezaket asanbladan?" galdetu du giza baliabideetakoak. "Nola ez" Unairen erantzuna.

## **Bankla salbatzeko gizartea sakrifikatzea erabaki dute**

Danbor hotsak ez datoz kapritxoz. Egoera latza da. Pertsonekin eta planetarekin jokatu duten marrazoek,

burbuilaz burbuila, kaosa sortu dute finantza munduan, ekonomian ondorio larriak ekarriz. Banka salbatzeko gizartea sakrifikatzea erabaki dute, langabe eta pobre kopuruak biderkatuz. Jendea gaizki dago, beldurrez, zer etorriko den jakin gabe, aurreikuspen itxurosorik topatu ezinik. Egoera honetan bi jarrera har daitezke. Bat: jendearen ahultasun eta beldurraz profintatu etekinak lortzeko. Edo bi: minak eta beldurrak elkarbanatu, datorrenari elkarrekin erantzun, etorkizuna guztion artean eta guztiontzako eraikiz.

Hitez guztiok bigarren aukera hartuko genuke, dudarik gabe. Baina, balio duena ez da esaten dena, egiten dena baizik. Eta zer da Adegik egiten duena pairatzen dugun krisi garai honetan? Jendearen beldurra eta egoera larriaz aprobeixatu 50.000 langileri zuzenean eragiten dion Gipuzkoako Metaleko Hitzarmena birrintzeko. Jendearen sufrimendua aspaldi nahi zuena eskuratzeko aukeratzat hartu du Adegik, eta Hego Euskal Herrian erreferentziatzat hartzen den Hitzarmen hau deuseztatuz, langileen baldintzak areago okertu nahi ditu, etekin gehiago lortzeko: pertsona gehienek bizi baldintzak pobretu, gutxi batzuek are gehiago irabazteko, ezen ez hobe bizitzeko.

Eraso hau zuzitzeko darabilten esaldi ohikoa ("banatu ahal izateko, aberastasuna sortu behar da lehenik") aitzakia hutsa da bizitzak egunero erakusten digunez: zenbat eta aberastasun gehiago, are eta gutxia-

go banatzen da, Adegik bere jarrera-ekin hain agerian utzi duen moduan. Daukaguna banatuzetik hasi behar da, etorriko ez den etorkizun baten zain gelditu gabe.

Zer bilatzen zuen Adegik, bada, Gipuzkoako Metaleko Hitzarmenean? Langileen malgutasun osoa enpresaren esanetara, murrizketa sozialak, greben debekua, lanordu igoera, hitzartutako ez betetzeko erraztasunak... Hori guztia eta gehiago nahi zuen Hego Euskal Herriko langile guztiak babes kolektiborik gabe uzteko azken helburuarekin, Gipuzkoako Metaleko Hitzarmen berria beste sektore guztien eredu eta ikasgai gisa erabili nahi baitzuen.

**Balio duena ez da esaten dena, egiten dena baizik**

Ez da oker zuzenik, jakina, eta jokaerek salatzen dute proposamenaren balioa: patronala puztua; negoziazio mahaian enpresarik gabeko Adegiko funtzionarioak soilik; 12 eserleku izan eta bertara joan soilik bat edo bi; mahaian parte hartzen zuten langileekiko jarrera harroa, formak gorde gabe, pertsonen duintasuna bera mespretxatzeraino; %5eko ordezkaritza duen UGT mahaian egotea eskatuz eta %45a duen ELA baztertzeko joko zikinak erabiliz; herritarren sufrimenduari entzungor eginez langile diziplinatuak lortzeko itxaropenarekin; enpresei negoziazio egoera errealdaren berri eman ez...

Azken finean, azeria kalkuluak egiten dabil beti. Ezin nahi eta pentsatzen duena lau haizetara zabaldu; entzuleen arabera moldatu behar diskurtsoa. ELAk hartu zuen jarrera-



Manifestazio ugari egin zituzten.

ren juntu kontrakoa. Egoera zaila izanik, Adegiren erasoaren tamainaz jabetuta, erantzun bateratuaren bila hasi zen. UGT eta CCOO bidaide harturik, elkarrekin egin zuten egin zezaketen bidea. Bide hori prentsaurreko bateratu batekin hasi eta Adegiren aurrean egindako kontzentrazioan amaitu zen, udaberri hasi berritan, ez baitzeuden haratago joateko prest. Jarraitu nahi zutenekin gelditzen zen bide bakarrari eutsi zitzaion: borrokari.

ELA eta LABek Gipuzkoa mobilizatu zuten. Metaleko langileek 9 greba deialdi egin zituzten. Zazpi aurrera atera zituzten, akordiora iritsita azken biak bertan behera utziz. Kontuan izan 7 greba horietaz gain bi greba orokor ere egin zituztela. Elkartasun keinu eta borrokarako grina: HISTORIA letra larritan idatzi zuten Gipuzkoako metaleko langileek. Adegik bertan behera utzi zituen bere asmoak, eta Gipuzkoako Metaleko Hitzarmena bere horretan mantenduko da urte amaiera arte. 2012koa negoziatzen hasi behar baita berriro ere!

Gauzak bihotzez eta jende langilearen hoberako egiten direnean, nabari da, transmititzen da, eta lan egiteko moduetan igartzen da, kasu honetan nabari gelditu zen bezala. Negoziazio mahaiari daukan garrantzia ematen zaio, hasiera hasieratik, gauzak serioski hartuz eta ongi prestatuz. Negoziazio mahaira 12 langile joan ohi ziren, 6 mahaiari esertzeko (ELArri dagozkion guztiak) eta sei ordeko. Guztiak enpresetako ordezkariak, langileek aukeratuak, enpresekin kontaktu erreala zutenak, eta eskualde guztietatik etorriak. Astero biltzea exijitu zuen,

halaber, ELAk, negoziazioa izoztu ez zedin.

Mahaiari hitz egindakoa zuzenean email bidez zabaltzen zen atal sindikaletara, eta akta bat ere inprimatzen zen, poligonoak pateatuz enpresaz enpresa Gipuzkoa osoan banatzen. Langileekin informazioa partekatu eta negoziazioaren berri eman, enpresetako egoera, zein langileen nahi eta desioak ezagutu eta negoziazio mahaiari txertatzeko asanbladak egiten ziren Tolosako Topic are-

toan. 200 ordezkariatik gora biltzen ziren bertan hilean behin.

Grebak aurrera ateratzeko asanbladak antolatzen ziren enpresetan. Ez zegoen ezkutatzeko ezer, kontrakoa baizik. Kontatzeko beharra zegoen, langile guztietara iristeko beharra, hitz egiten zen lekuetan greba ateratzen zelako. Hala, ELAk gutxiengoa edo ordezkariarik ez zuen zenbait enpresatan, ere, grebak aurrera atera ziren. Baita enpresako hitzarmena zuten enpresa handietan ere, asko baitzegoen jokoan. Eta mobilizazioak kutsakorrak direnez, izurrite hori Gipuzkoan zabaltzea lortu zen jendearekin, gertu, egonez. Zentzuzkoak ziren ELA eta LABen eskaerak, langileenak; inoiz ez enpresen errealitatekin urrun zeudenak.

### **Pertsonaleko burua, ELAk konbentzitu**

Berebiziko garrantzia izan zuten, halaber, Gipuzkoako enpresa nagusiekin, negoziazioen berri emateko, egin ziren bilerak. Bertan jabetu ziren enpresa hauek Adegik ez zela negoziazioen berri zehatza ematen, eta kontuak eskatu zizkieten normala denez.

Ezkutatzeko ezer ez dagoenean, leku guztietan gauza bera kontatzen da, eta konbentzitu egiten da, berrtan ari zarela edonork igartzen baitizu. Galdetu bestela Unai Martinez asanbladatik kanpo utzi nahi zuen pertsonaleko buruari. Asanbladan izan zen. Guztiak entzun zuen, eta amaieran: “Zer?”, galdetu zion Unai. “Ba, okerrera da...” hasi zitzaion pertsonal burua, “... bat natorrela esan duzuen gauza askorekin!”.

**Gauzak bihotzez eta jende langilearen hoberako egiten direnean, nabari da, transmititzen da**